

# BESTELAKO XEDAPENAK

## KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA

### 4947

*HUTS-ZUZENKETA, ondoko ebazpenarena: «Ebazpena, 2023ko urriaren 2koa, Kulturako sailburordearena, Euskadiko Irakurketa Publikoko Sareko liburutegietan teknologia berriak ezartzeko eta/edo garatzeko dirulaguntzak emateko dena».*

Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria arautzen duen abenduaren 23ko 217/2008 Dekretuaren 18.2.b) artikuluan xedatzen denez, argitaratzeko bidalitako testuan dauden hutsak edo omisioak Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrarekiko Harremanetarako Zuzendaritzak zuzenduko ditu, baldin eta nabarmenak badira, dokumentuen esanahia aldatzen ez badute, eta nahasbiderik ez sortzeko komeni bada. Zuzenketa egiteko eskaria testua argitaratzeko agindua eman duen organoak egingo du.

Era horretako hutsak atzeman dira Kulturako sailburordearen 2023ko urriaren 2ko Ebazpenan (2023ko urriaren 10eko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria, 194. zenbakia). Ebazpen horren bidez, dirulaguntzak ematen dira Euskadiko Irakurketa Publikoko Sareko liburutegi publikoetan teknologia berriak ezartzeko eta/edo garatzeko. Hori dela eta, dagokion zuzenketa egiten da ondoren:

Eranskinean, 2023/4638 (4/3) orrialdean,

hau dio:

Otxandio	082-LTB-2023	1.272
----------	--------------	-------

baina hau esan behar du:

Markina-Xemein	082-LTB-2023	1.272
----------------	--------------	-------